

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Agenda 21eko Foroa


2008ko azaroaren 6an egindako tailerraren akta

Legazpiko udaletxean
18:30etik 20:00etara.

Estatu Batuetako hauteskundeak direla eta, historian lekua izango duen aste honetan Legazpiko Foroan ere bozketa izan dugu! Eta guretzat oso garrantzitsua den gaiari buruz: joan den urriaren 29an Udaleko Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Agenda 21eko Tokiko III. Ekintza-planean sartu diren ekintzak ezagutu ondoren, datorren 2009. urtean Foro honetan landuko ditugun gaiei buruz ezarriko ditugun lehentasunak ezagutu nahi izan dugu.

Alajaina!

Handia zen erronka eta handia zen, halaber, tailerrean taldetan lan egiteko diseinatuta geneukan prozesua ere... Izan ere foro hau maila handikoa da eta parte hartzeko indar handia dago bertan! Eta horrenbeste osagaiekin, gure helburua lortu dugu!



Jon Uribeetxeberriak esandakoarekin geratzen gara...

Agenda 21eko Foroa Legazpik dituen altxorretako bat da.

● Taldea!

Gaur, eta ohi bezala, bikain egon da! Horregatik, egunetik egunera harritzen gaituzuelako eta gauza asko erakusten dizkiguzuelako, ... **eskerrik asko!** gaur bereziki, zuei!

Floren Gutiérrez ♦ Joxean Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) ♦ Juan Miguel Urrutia ♦ Francisco Javier Iraeta ♦ Eugenio Gil ♦ Isabel Vallejo (Olazabal institutua) ♦ Arantxa Segurola (Haztegi) ♦ Zaida Kasales (Egialdeko Auzo Elkarte) ♦ Arantza Lobo ♦ Juan Carlos Altzelai (Harri Urdin Brinkolako Auzo Elkarte) ♦ Fernando Martínez de Albeniz ♦ Rafael Gómez ♦ Begoña Santillán y Begoña Lekue (Iratzarri) ♦ Jose Luis Cid ♦ Agurtzane Elustondo (Lenbur) ♦ Montse Vallejo ♦ Jose Luis Ugarte ♦ Manuel Fernández ♦ Sagrario Díaz ♦ Juncal Fernández ♦ Iban Odriozola ♦ Ane Odriozola ♦ M^a Cruz Alustiza ♦ Sotero Plazaola (Legazpi alkatea) ♦ Jon Erramun Uribeetxeberria (Legazpiko zinegotzia) Inma Hernandez (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, SC).



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

● **Hasiera emateko, bideo bat eta informazio-oharrak**

Inmak ongi etorria egin ondoren eta tailerraren gai nagusiarekin hasi aurretik, denbora-tartetxo bat hartu dugu interesgarriak diren hainbat ohar emateko. Horrezaz gain, Foroaren lana eskertzen duen eta txaloak merezi dituen bideo bat ikusi dugu.

• **Legazpiko 2008-2014 epealdirako Agenda 21eko Tokiko III. Ekintza-plana, onartua!**

Joan den urriaren 29ko Osoko Bilkuran onartu zen ekintza-planaren behin betiko txostena. Ekintza-planak, iraunkortasunaren helburuak aintzat hartuta, 2008-2014 epealdian, Legazpin burutuko diren lehentasunezko ekintzak jaso ditu. Bidea erakusten digun iparrorratza da, eta bete behar ditugun helburuak ezartzen dizkigu argi eta garbi!

Gainera, Foroak planaren haurdunaldian hartu du parte eta, beraz, gertutik jarraituko dugu planaren garapena...

• **Legazpi finalista izan da Udalsarea 2008 sarietan.**

Ikusi dugun bideoa Legazpiko Udalak aurkeztu zuen joan den azaroaren 4an Barakaldoko BEC erakustokian ospatu zen 2008ko Udalsarea sarien banaketa-ekitaldian. Bideo horretan Agenda 21eko Tokiko III. Ekintza-plana osatzeko esperientzia jaso da. Bideoak modu errazean azaltzen du jarraitu dugun prozesua eta agente desberdinekin, Agenda 21eko Foroarekin, arduradun politikoekin, udal teknikariekkin eta bestelako erakundeekin... jarraitu den lan koordinatua, zeharkakoa eta parte hartzailea eman du jakinera.



Ah... eta txalo bat Floreni, bideoan ezin hobeki ordezkatu duelako Foroa!

• **Azaroaren 10ean, astelehena, ingurumenari buruzko hitzaldia Iratzarri elkartearen egoitzan.**

Arratsaldeko 16:00etatik aurrera, Juncal Fernandez Foroko kideak guztiok ingurumen arloan (ura, hondakin solidoak, airea,..) martxan jar ditzakegun ekintzei buruzko saio praktikoa eskainiko du. Aukera ederra ikasteko eta ohitura berriak hartzeko!

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- CD opari!

Gaur, gainera, Foroaren bileran gauza berriak bizi eta ikasteaz gain, opari bat eraman dugu etxera. Joxan Auzmendi jaunak Legazpiko beste altxor baten gaineko CD bat banatu digu: Aizkorri-Aratz. Asteburuan ikusteko!

- Eskolako Agenda 21ean, aurten ikastetxeek honako gaia landuko dute.

Gai interesgarri bat! Arantxa Segurola irakasleak azaldu digunaren arabera, "Ekitate eza" izenburuarekin kontsumoarekin eta ekitatearekin lotutako alderdiak aztertuko dituzte eta, beraz, pobrezia, gizarte mailako ekitate eza,... eta horrelakoak aztertuko dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoan lehenengoak izango dira gai hori aztertzen, eta seguru gaude Foro honetan haiengandik ikasiko dugula! Agian, elkarrekin egin dezakegu ekintzaren bat... jasota geratzen da ideia!

- Legazpiko Udalak aurrera doa ingurumen-hobekuntzak ziurtatzearen alde egin duen apustuarekin.

Inmak gogora ekarri digu, ingurumen arloan Legazpiko Udalak egin dituen hobekuntzak Ekoscan arauarekin ziurtatzen lehenetarikoa izan zela. Horrela, Ekoscan ziurtagiriak lortu zituen Udalak udal bulegoentzat eta obra-lantaldearentzat.

Obra-lantaldeak ziurtagiria berritzea ahalbidetzen duen ikuskapena gainditu du orain dela gutxi eta esan beharra dago lorpen garrantzitsuak eman direla eta horien aipamena egitea merezi du. Adibidez:

- Elektrizitatearen kontsumoak %38 egin du behera, tenporizadoreak eta presentzia-detektagailuak jarri dituztelako.
- Murriztu egin dira inausketako eta lorezaintzako hondakinak; horretarako inausketa-plan bat egin da (dagoeneko Osoko Bilkurak onartu duena) eta plan horrek zuhaitzen inausketa arrazionala –eta ez sistematikoa– bultzatzen du (zuhaitzaren behar zehatzaren araberakoa, lekuaren araberakoa,...).
- Inausketako eta lorezaintzako hondakinak biltzeko, txikitzeko eta konpost egiteko sistema eraginkorragoa asmatu dute. Lehen, hondakin horiek jaso bakoitzeko Sasietako konpostaje-plantara eramaten ziren; orain, jaso eta bildu egiten dira lehenbizi, eta txikitu ondoren urtean behin Sasietara eramaten dira konpost egiteko. Aldaketa horri esker %43 jaitsi da hondakinen produkzioa eta dirutan 16.000 euro aurreztea lortu da. Ah! Lortutako konposta udalerriko lorategietan erabiltzen da.



Gaiari dagokionez, Foroan egindako galdera jasotzen dugu: planteatu al daiteke partikularrek sortuko dituzten inausketako eta lorezaintzako hondakinak kudeatzea? Zehatzago aztertuko da gaia!

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Laster udal bulegoak izango dira ikuskapen hori pasatu beharko dutenak... ea emaitza onak eta eredugarriak lortzen diren!

- Zuzenketatxo bat Aiztonagako errekatxoari buruz

Floren Gutierrez eskatu du hitza eta azkeneko foroan eskaini zigun iritzia zuzendu nahi du. Zehatz-mehatz Aiztonaga errekatxoak botatzen duen usaina kolektorearen egoera txarrarekin lotu zuen. Teknikariek aipatu kolektorearen egoera berrikusi dute eta egoera onean dagoela egiaztatu dute (orain dela gutxi konpondu zuten). Soterok esan duenez, aztertzen ari dira usain horren zergatiak (izan daiteke etxebizitza batzuk bere ur zikinak oraindik sarera bideratu gabe izatea). Dena dela, Udala eta Ur Kontsorzioa horretan ari dira lanean eta arazoa lehenbailehen konpontzea espero da.

Eta zuzentzea zuhurra denez, ... eskerrik asko Floren! Argituta geratu da!

- **Eta aurrera egingo dugu gaurko gaiarekin!**

III. Ekintza-planean sartutako ekintza guztietatik, zeintzuk aztertu nahi ditugu datorren 2009ko Foroko tailer hauetan?

Egin beharrekoa zaila dela jakin arren, hauxe da gaur taldean erantzun nahi izan dugun galdera.

- Udalak 2009. urtean burutuko dituen ekintzen lehentasunak ezarri.

Horrekin hasi baino lehen Jon Uribeetxeberria jaunak Udalak berak 2009. urterako lehenetsi dituen ekintzak aurkeztu dizkigu. Ekintza horien kostua, gainera, dagokion aurrekontuan jaso da. Eta ondoren zehazten direnak dira:



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

2009. urtean Udalak martxan jarri nahi dituen proiektu berriak

1.2.1. Legazpiko natur eta kultur ondarearen inbentarioa egin nahi da.

Inbentario horretan honakoak jasoko lirateke: mendiak, flora, fauna, hizkuntza, toponimia, nekazaritzako ohitura tradizionalak, bertako haziak, hezeguneak, iturburuak,... Kasu guztietan, ahal izanez gero, honako datuak jaso nahi dira: lehentasun-maila, berreskuratzeko eta zaintzeko ekintzak. Horiek guztiak gure aberastasuna, jakinduria eta memoria dira eta herri honek ezin ditu galtzen utzi.

2.1.2. Patrizio Etxeberria kalean 30. Area ezarri nahi da.

Mugikortasun Iraunkorraren Planean proposatutakoarekin bat etorritz, Patrizio Etxeberria kalean 30. Area ezarri nahi da.

2.1.3. Latxartegi kalean 30. Area ezarri nahi da.

Mugikortasun Iraunkorraren Planean proposatutakoarekin bat etorritz, Kultur Etxea, Gizarte-zentroa, Osasun-zentroa... dauden inguruan 30. Area ezarri nahi da.

2.1.4. Autobus zerbitzua eskaintzea herri barruko joan-etorriak errazteko.

Autobusaren bideragarritasuna aztertzea. Diru-laguntza bilatzea. Martxan jartzea. Mugikortasun Iraunkorraren Planean proposatutakoarekin bat etorritz.

2.1.6. Bidegorria ezartzea Aizkorri kalean eta Juanastegi kalean.

Mugikortasun Iraunkorraren Planean proposatutakoarekin bat etorritz.

2.1.7. Trafiko-antolaketaren oinarrizko ibilbidean bidegorria osatzea (Santikutz kalea...).

Mugikortasun Iraunkorraren Planean proposatutakoarekin bat etorritz.

2.1.10. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lan egitea udalerrien arteko bidegorriak egin daitezten.

Legazpi eta Zumarraga-Urretxu herrien arteko bidegorrian egiteko dagoen bide-zatia bukatzea.

3.1.3. "AHAL": kontsumitzaileak ahal izatea.

Jai iraunkorrak.

8.4.3. Elkartekin akordioak lortzea Tokiko Agenda 21ek bultzatzen dituen ohitura iraunkorrak har ditzaten.

Elkartekin akordioak lortzea (ad. Merkatariak, elkarte gastronomikoak, kirol elkarteak,...) ohitura iraunkorrak har ditzaten (enbalajeak murriztea, plastikozko poltsak...).

7.1.1. Legazpiko merkataritza biziberritzeko Plana egitea.

Legazpiko merkataritzaren egoera aztertzeko aholkularitza bilatzea eta hura biziberritzeko neurriak proposatzea.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- **Eta guk, Foro honetan, zein gai landu nahi ditugu?**

Udalak ezarri dituen eta oso ondo baloratzen ditugun lehentasunak ezagutu ondoren, lanari ekin diogu! Taldetan banatuta, arreta eta dedikazio handiz, III. Ekintza-planaren ekintzak aztertu ditugu, estrategiaz estrategia. Ondoren, gure ustez lehentasunezkoak diren 16 ekintza aukeratu ditugu eta horiek, datorren urtean landuko ditugu Foro honetan.



Eta taldeari esker, gai izan gara 16 ekintza horiek hartu eta horietan ere lehentasunak ezarriz 6 ekintza bereizi ditugu, gure ustez gainerakoen aurrean lehentasuna dutenak.

Eta horiek taula batean jaso ditugu segidan!

Ekintza	Foroko Boto-kopurua	Lehenetsitako 6 ekintzak? (lehenengotik azkenera)
1.1.9. Legazpiko basoen eta oihan-eremuen kudeaketa iraunkorra sustatzea.	12	Lehenetsitako bigarren ekintza
1.5.3. Airearen kalitateaz eta irtenbideak aurkitzeaz herrian dagoen kezka eskualdera zabaltzea.	4	
2.1.11. Sentsibilizazio-ekintzak leku batetik bestera ibiltzeko ohiturak alda daitezzen.	11	Lehenetsitako hirugarren ekintza
2.1.5. Laubide kalea, Kale Nagusia eta Nafarroa	3	
2.1.8. kalea oinezkoentzat egokitzea.		
3.1.1. "JAKIN": Kontsumitzaileak jakin dezala.	16	Lehenetsitako lehenengo ekintza
3.1.2. "NAHI": Kontsumitzaileak nahi izatea.		
3.1.3. "AHAL": Kontsumitzaileak ahal izatea.		
3.3.1. Sentsibilizazio-ekintzak hondakin gutxiago sor daitezzen.	2	
4.1.3. Hirigintzako eta eraikuntzako ordenantza egitea.	2	
4.3.1. Auzoak birgaitzea.	10	Lehenetsitako laugarren ekintza
5.4.2. Balore unibertsalak sustatzea (errespetua, desberdintasunaren balorea, ahalegina, elkartasuna,...) eguneroko bizitzaren arlo desberdinetan.	1	
5.4.6. Lantalde bat sortzea gazteriaren heldutasuneranzko prozesua bultzatzea.	1	

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Ekintza		Foroko Boto-kopurua	Lehenetsitako 6 ekintzak? (lehenengotik azkenera)
6.1.1.	Adineko pertsonak euren etxeetan autonomoak izan daitezela bultzatzea.	3	
6.3.1. 6.3.2.	Indarkeriaren zikloa garaiz antzematea eta hari aurrea hartzea. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokari koordinazio-, kalitate- eta eraginkortasun-irizpideekin erantzutea.	1	
7.1.1.	Legazpiko merkataritza biziberritzeko Plana egitea.	11	Lehenetsitako hirugarren ekintza
7.4.1.	Enpresa-erantzukizuneko politiketatik abiatuz, herriko enpresek herrirako garrantzitsuak diren proiektuetan parte har dezatela bultzatzea.	4	
8.1.2.	PEFC eskualdeko baso kudeaketa bultzatzea udaletxeko lursailetarako.	9	
8.1.4.	Gizarte-egituraren aldaketa sustatzea; herritarrentzako erreferente izango den erantzukidetasuna eta adiskidetzea sustatuko duen gizarte-egitura bultzatzea.	8	
8.4.1.	Agenda 21eko III. Ekintza-planean gazteriaren parte hartzea eta inplikazioa bilatzea.	10	Lehenetsitako bosgarren ekintza

OHARRA: Horiez gain, eta lehenetsunezko ekintzen artean sartu ez badugu ere, Foroak Udalak lehenetsi duen 1.2.1 ekintza ere landu egin behar dela uste du. Hauxe da 1.2.1. ekintza: "Legazpiko ondarearen eta kultura-eta natura-aniztasunaren gaineko Inbentarioa egitea".

Laburbilduz...

Foro gisa, 2009. urtean landu nahi ditugun proiektu berriak

3.1.1., 3.1.2. eta 3.1.3. "JAKIN": kontsumitzaileak jakin dezala. "NAHI": kontsumitzaileak nahi izatea. "AHAL": kontsumitzaileak ahal izatea.

1.1.9. Legazpiko basoen eta oihan-eremuen kudeaketa iraunkorragoa sustatzea.

2.1.11. Sentsibilizazio-ekintzak leku batetik bestera ibiltzeko ohiturak alda daitezten.

7.1.1. Legazpiko merkataritza biziberritzeko Plana egitea.

4.3.1. Auzoak birgaitzea.

8.4.1. Agenda 21eko III. Ekintza-planean gazteriaren parte hartzea eta inplikazioa bilatzea.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Erronka handia, geure buruari ezarri dioguna! Baina aukera handia ere bai, proiektu desberdinak direlako, garrantzitsuak, gure baloreekin eta ahalmenekin zerikusia dutenak... eta Foroak izango du zer esan!

● **Eta bukatzeko, eskerrik asko eta beste oparitxo bat!**

Eskerrik asko! Gaur Foroan eskatu dizueguna ez zelako lan erraza eta zuek, nola ez, ederto egin duzue! Bikain!

Eta esker oneko hitzak baino gehiago merezi duzuela uste dugunez, Inmak oparitxo bat egin nahi dio Foroari... ahal izanez gero abenduan, eta abenduan ezin bada urtarrilean, Agenda 21eko Foroarekin tailer bat egitea proposatu du. Baina tailer desberdina izango da... **sormen-tailer bat!**

Ikasle gisa tailer desberdin batean parte hartzea proposatu digu. Bertan, pertsona aditu batek beste modu batera pentsatzen lagunduko digu, gure buruari etekin handiagoa ateratzen, ideia berriak, gauza desberdinak sortzen.... Ikasiko duguna oso baliagarria izango da gure bizitzarako eta, nola ez, Agenda 21eko Foroaren dinamikarako.

Idea bikaina iruditu zaigu eta, beraz, aho-gozagarri horrekin... agur esaten dugu! Abendura arte, edo urtarrilera arte... sormen-tailerrean elkar ikusi arte!

Esker mila guztioi, bene benetan!